

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A1E09 Diskotekan
Maila: A1
Helburuak: Tabernan eskaera egitea..
Funtzioa: Zerbait dagoen edo baden galdetu eta erantzutea.
Azken ekintza: Ondoko tabernan erronda bat eskatzea.
Adierazpide linguistikoak:

- Orainaldi ez burutua (joaten naiz).
- *Nahi izan* aditza.
- Lexikoa: Denboraren inguruko lexikoa.

1- ENTZUN AURRETIK

Datuak biltzeko behar duten laguntza eskaini; esaterako, edarien izenak azalduz.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zertan ari dira?

Lehen zatian zertan ari dira? Aurkezpenak egiten.
 Eta bigarren zatian? Berriketan.
 Eta hirugarrenean? Barran ordaintzen.

2.2 Nork ordainduko du?

Noiz dago giro ederra diskotekan? Ostiraletan.
 Zer da Oier? Neskazalea.
 Nork ordainduko du? Denen artean.

2.1 eta 2.2ko erantzunak denon artean zuzendu ondoren, galdera gehiago egin ea beste zerbait ulertu duten ikusteko, denon artean ahalik eta informazio gehien lortzeko:

Zer eskatu dute edateko? Josuk, Alexek eta Oierrek kalimotxoak; Amaiak, vodka laranjarekin, eta Junek, tekila bat.
Noiztik ez dira atera bostok elkarrekin? Amaiaaren ongi etorriko festatik.
Zenbat ordaindu dute erronda? Hamalau euro.

...

2.3 Zer falta da?

GAIA: denbora
 1- gaur
 2- Urte askotarako
 3- ostiraletan
 4- segituan
 5- Noiztik
 6- lehenago
 7- pixka bat
 8- azkar

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Hau nahaste borraratea!

- Bueno, zer jarriko dizuet?
 - Niri kalimotxoak!
 - Eta zuei?

- Niri vodka laranjarekin!
- Eta niri tekila bat!
- Hemen dituzue edariak!
- Zenbat da?
- Hamalau euro.
- Tori.

Transkripzioa

ZERBITZARIA.— Kaixo, Josu. Kuadrilla galanta ekarri duzu gaur diskotekara!

JOSU.— Bai, Maria, pisukide guztiak. Zaila izan da, baina parranda pixka bat egiteko garaia zen!

Hemen dituzu: June, Amaia, Oier eta Alex.

JUNE.— Kaixo!

AMAIA.—Kaixo!

ZERBITZARIA.— Urte askotarako!

ALEX.— Pozten naiz!

OIER.— Giro ederra duzue diskoteka honetan!

ZERBITZARIA.— Bai, baina ostiraletan bakarrik! Bueno, zer jarriko dizuet?

JOSU.— Niri kalimotxo! Eta Alexi eta Oierri ere bai, ezta?

ALEX.—Bai!

ZERBITZARIA.— Eta zuei?

AMAIA.— Niri vodka laranjarekin!

JUNE.— Eta niri tekila bat!

ZERBITZARIA.— Primeran, segituan ekarriko dizkizuet edariak!

1. ETENA (00:47)

Zerbitzaria badoa eta koadrilla bakarrik geratuko da.

JOSU.— Bazen garaia! Noiztik ez gara atera bostok elkarrekin?

ALEX.— Amaiaren ongi etorriko festatik, nire ustez.

OIER.— Josu, zergatik ez diguzu diskoteka hau lehenago erakutsi? Hemen giro aparta dago. Buelta bat ematera noa!

AMAIA.— Uf! Eskerrak alde egin duen! Oierrek neskak bakarrik ditu buruan.

JUNE.— Mutil jatorra da, neska.

JOSU.— Bueno, bueno... dantza pixka bat egingo dugu? Goazen pistara!

ALEX.— Bai, baina itxaron pixka bat, edariak ekarri arte.

JOSU.— Ados, baina azkar, giro bikaina dago eta.

2. ETENA (01:22)

Zerbitzaria hurbilduko da edariekin.

ZERBITZARIA.— Hemen dituzue edariak!

AMAIA.— Zenbat da?

ZERBITZARIA.— Hamalau euro.

AMAIA.— Zenbat?

ZERBITZARIA.— Hamalau!

AMAIA.— Tori, 10, 12, ... eta 14.

ZERBITZARIA.— Zuk ordainduko duzu dena?

AMAIA.— Maria, ez dizut ezer entzuten!

ZERBITZARIA.— Erronda zuk ordainduko al duzu?

AMAIA.— A! ez, ez, ez. Potea jarri dugu denon artean. Bueno, pistara goaz. Aio!

JOSU.— Bai! Goazen dantzara!